

## Martin Ugalde: Idazten dut ikasteko

Sabin Oregi

*La Voz de España*, 1984-12-15.

*Mugarri galduen itsumundua* izan da Irun Hiria saria irabazi duen ipuina. Bertan Martin Ugaldek kontatzen gaitu zahartzaroaren berriak. Caracasen zegoela hasi zen bera gauza guztiak ipuin bidez ematen. Han egin zituen bi edo hiru liburu etorkinei buruz. Ipuinak egiten zituen une berean artikuluak ere idazten zituen egunkarian. Egunkarian idatzitako lauzpabost ipuinak irabazi zuten saria. Martin Ugalde Andoainen jaioa da, eta gaztetandik ikusi izan du bere familia guztia zeharo barreiatua, sakabanatua: aita Venezuelara joana zen, anaia Errusian zegoen eta bera amarekin bizi izan zen Andoainen. Lortu zuten ama-emeak Venezuelaratzea eta han bizi izan ziren familiako guztiak batera berriro; ordurako beste anaia igorria zen Sobiet Batasunetik Venezuelara. Han hasi zen Martin Ugalde idazten, kazetaritzan masterra atera eta aldizkari mordoxka bat zuzendu zituen.

Iragan astean hurbildu gatzaion Martin Ugaldere elkarrizketa egiteko asmotan, eta ordu luzetan elkarrekin egon ginen hitzegiten. Bertan, azpaldian elkarrekin ikusi ez duten lagunen antzera gauza askotaz hitzegin genuen. Egia esan behar badut, gauza asko ikasi nituen berekin hitzegiten. Bera jakinduriatzko putxu sakon bat baita. Eta horrelako putxueta edaten duzunean sekulako freskotasuna sartzen zaizu gorputz barrenean. Baina *Euskal Herriaren historia* edo *Hablando con los vascos*, batzu aipatzear, liburuak idatzi dituen idazlearen aurrean egonik, egokiena idazketaz, idazletaz, literaturaz, eta horrelakotaz mintzatzea litzateke.

Geuk horrela egin dugu. Ta lehenbizi zenbat denbora eraman dioen ipuinak idaztea galdetu dugu.

– Hilabete bat inguru ibili naiz bueltaka ipuin horrekin. Askotan ipuin bat idazten ari zarenean, edo bukatua duzunean; hasten zara beste zerbaitekin. Eta beti uzten duzu aurreko kontua beste begirada bat eman gabe. Handik zortzi hamar bat egunera, tarte bat duzunean, hartzen duzunean berriro eta piska bat begiratzen diozu. Horregatik uzten dut hilabete bat esatea ez dela gehiegi ez eta gutxiegi. Hortxe nonbait.

– Zela da Ipuinaren helburua?

– Ipuin honek zahartzaroaz du gaia. Eta zahartzaroaz egin ditut beste bost ipuin ere. Horiek orain Durangoko azokan irten dira. Ereinek du *Mantal urdina* liburua, eta berak aurkeztu du. Ipuin denak dute gai bera liburu bezala.

Nik badut tendentzia, askotan nahi gabe, nere lanak osorik egitekoak. Edo gai batetaz idazten badut, beste zerbait egitea. Esate baterako ni Caracasen egon nintzenez egin nituen bi edo hiru liburu inmigranteaz. Hor ikusten duzu nire joera. Nahi nuen inmigrantez pentsatzen nituen gauza guztiak ipuin bitartez eman. Hori zen nire biderik errezena eta nik gehien maite nuena. Artikuluak idazten nituen garai berean. Gai

haundia zen Venezuelan –adierazten du, antzinako gauzak gogoratzen dituenak bezala–, inmigrante asko joan bait zen herri hortara. Eta egin ziren hiru liburu hoietatik lau edo bost ipuinek irabazi zuten sariak. Kaso honetan ere asmo berdinarekin egina izan da liburu hau. Ez da gaia monotonoa. Badakizu zahartzaroak gora behera haundiak ditu. Batzu gozoagoak dira besteak baino, besteak oso mikatzak. Zahartzaroak badu alde batetik, nire ustez, bakardadearen bide bat, bakardadearen situazio lehor eta nahiko mingarria dena.

– Zahartzaroko bakardadeak keskatzen zaitu...?

– Gaztea denean bakardade askotan eramaten da, barrua kanpora atera eta gaztea gaztearekin aise komunikatzen da. Baina zahartzaroan bat geratzen da gorputza oso lotua, horrek berak, gaitzak eta baztarten zaituzte nonbait. Lagunak, gehienak hiltzen zaizkizu edo gutxitzen dijoazkizu. Eta bakardadea haundia da.

Bakardade horretan gizona ez da isilik, ez da geldirik, ez da mutu inoiz geratzen. Hitzegiten ez badu ere; askotan ausartzen ez dalako, edo horretarako ahalmenik ez duelako ere; burua ez zaio geratzen. Eta hori da barrurako, beretzako hitzegitea. Burutazio hoiek keskatu naute neri askotan. Zer pentsatzen ote du bakar bakar txalupa txiki bat ur bazterrean betiko zulatuta geratu den bat bezala? Zer pentsatzen du gizon zaharrak eta heriotzaren zain dagoenak?

Askotan pentsatu dut zahartzaroan etortzen direla bai gazte denbora eta haurtzaroko gauzak ere. Sekula gero hori haurtzaroan zerbait jaso eta gero bat zahartu arte inoiz pentsatu duzue zerbait ager daitekeen momentu horretan? Eta gauz txiki horrek gizonak kezka dezakeenik? Eta kezka horrek ez du soluziorik? Behar bada ez dago hain urruti, eta gainera baliteke txikia izatea ere. Baina gizonak bere bakardadean gainditzen badu arazo hori gizona bere azken arte keska dezake. Hori da neretzat gai bat. Zer egiten du gizonak kasu honetan?

Ari nintzen pentsatzen gure herrian katolikoak izan gera, eta aitortza beharrezkoa zen jauna hartzeko. Aitortzea, pentsatzen dut, zaharrentzat deskansu moduko zerbait izango zela. Beste inori esateko kemenik ez zuen izango. Baina aitortza batean bai. Eta orain hori kendu diote, eta lasaitzeko zuen irtenbide bat kendu diote. Ez horrek zerura edo infernura joateko entitaterik zuelako. Pertsona batek gauz haundia txikia dela pentsatzen badu, bere keskak edo minak asko haunditzen ditu.

Gero mintzatu zitzaigun nola orain aitortzen derrigorrezkoa ez izatean, hainbat zahar ez direla ondo sentituko "ba aitzerakoan modu batez deskantzatu egiten dira".

– Zergatik idazten dituzu hain gai mingarriak?

– Horrela gertatu zitzaidalako nere gurasoekin eta horrela sortu zaidalako. Eta nere sensibilitadea hortik ziholako.

Gehiago esango det oraindik. Egilek ez duela gehienetan gaia aukeratzen. Gaiak aukeratzen dutela bera, egilea. Gai batzu egile batzu aukeratzen dituzte. Nik, egia esan, nere kontu ipui asko idatzi izan ditut, bai erdaraz eta bai euskaraz. Askok, ez dakit zenbat izango diren, baina ehun! edo gehiago. Batzu puskatu ditut gero, beste batzu argitaratu direnak, gehienak, bainan nik uste dut gehienak iristeak direla. Badira pozgarriak ere, baina hestuasuna pasa ondoren sortzen diren poxak. Horrek esan nahi daukatela sensibilitadea bat, gaizki dauden gauzak, eta gaizki ikusten ditudan gauzak nolabait ere esplikatzeko, konprenitzeko eta ulertzeko.

Behin entzun nuen kritiko bati, "askotan idazlea dela Jainkoaren aurka borroka egiten duena". Alegia zergatik Jainkoaren aurka? Ba Jainkoak egin ditu gauzak modu batera, eta batzu guk ikusten ditugun modura, esan dezakegu Jainkoak egin edo utzi dituela horrela gertatzen. Orduan, zerorren goitik behera datorren horren protesta egiten du. Idazlearen protestatzeko bidea horixe da: idatzi eta behar bada ipuian zure esplikazioa eman. Behar bada ez da harrokeria; behar bada da, pertsonak gauzak esplikatzeko duen alegina. Zeren idazleak idatzi bidez du aukera hori eta hortik joaten da. Gauza sakonak dira, eta zailak esplikatzeko.